

# Trans-hirigintza eta herri-eraikuntza

*Laburpena: Hiria Antolatzeko Plan Orokorren (HAPO) idazte-lanean prozesu parte-hartzailea logika komunitarioaren bidez praktikara eramanez gero, udalerraren diagnosi partekatua eta herritarren arteko lan-dinamika sartzeko aukera dago. Horrela, HAPO eraikuntza fisiko eta sozialerako tresna bilakatuko da, herrigintza egiteko gako-bidea.*

*Gako-hitzak: trans-hirigintza, herrigintza, Hiria Antolatzeko Plan Orokorra (HAPO), Ibarrangelu*

*Abstract: The active participation of citizens in the process of definition of the territorial strategies is a great opportunity to create a work dynamic based on community logics. Urban planning has the potential to build both social and physical structures to imply in territorial strategies.*


*Key words: transversal urban planning, building community, Strategical Territorial Planning, Ibarrangelu*

Igor Ahedo

Soziologian doktorea eta EHUKo Politika eta Administrazio Zientziako irakaslea

Ula Iruretagoiena

Arkitektoa eta EHUKo irakaslea



Jasotze-data: 2014-06-29/Onarpen-data: 2014-09-05

## Trans-hirigintzaren aldarrikapena

Hiria Antolatzeko Plan Orokorra (HAPO) udalerrimailako hirigintza-proposamena arautzeko dokumentu legal eta teknikoa da, zeinaren bitartez udalerraren etorkizuneko ibilbidea definitzen den, idazte-prozesuan detektatzen diren udalerraren eskakizunen arabera. Gizartearen errealitatea denboran zehar aldatzen denez gero, 8 urterik behin dokumentuaren edukia berrikusteko beharra du udalak. HAPO hirigintza-lengoaia tekniko eta legalaren mozorropean agertzen zaigun arren, lurraldearen antolaketak gure bizimodua zeharo baldintzatzen du, hots, dokumentuaren edukia egunerokotasunarekin loturiko erabaki arras esanguratsuei loturik dago. Esaterako, nola mugitu gaitezkeen udalerrian zehar eta zein garraio-sistemearekin, zein erabilera mota egin daitezkeen lurzoru bakoitzean, non egon daitezkeen ekipamenduak edota datozen urteetako zenbait inbertsio publikoren helburua, besteak beste, HAPO dokumentuan definitzen dira. Udalerraren lurraldea euskarri fisikoa dugu eta hirigintzak zer/non egin daitezkeen baimendu edota debekatzen du, baina erabaki horien atzetik sakontasun handiko estrategiak daude, nolabait esateko, egiteko eta pentsatzeko eredu baten emaitza da.

Plangintzan zehazten diren aspektu hauek guztiak pertsonen bizitzan dute ondorio eta, beraz, planaren kudeaketan bizilagunen iritzia aintzat hartzeak lurraldean inplikaturik diren zehar-ikuspegi eta hurbilketa oro identifikatzeko aukera eskaintzen digu. Modu horretan, HAPOren edukia gizabanakoaren bizimodu-ereduaren aukeraketarekin duen harremanagatik, HAPOren idazte-lana aukera paregabea


da esku-hartze dinamikak praktikan jartzeko, herriaren eraikuntzaren zimendu lana egiteko hastapen bide bat izan baitaiteke. Horretarako, HAPO helburu izatetik lan-tresna izatera salto egin behar da. Hirigintzaren aitzakiaz beraz, hirigintzaz haratago doan parte hartze prozesua abian jartzeaz ari gara, trans-hirigintzaren bidetik hain zuzen ere. Trans-hirigintzak ikuspegi sektoriala gainditu eta hirigintza etorkizun komunaren eraikuntzarako lokarri bilakatzea erdietsi nahi du, zeharkako lotura eginaz alegia.

HAPOk udalerraren etorkizun komunaren oinarriak eztabaidatu eta ebaztea du helburu eta egiteko horretan ez dugu lurraldearen eraikitze fisikoarekin lotutako gaitara mugatu behar, beste mailako eraldaketak gauzatzeko oinarriak ezin baitira alboratu azterketan (pertsona zaharren zailtasunak, bizitza soziokulturalaren dinamizazioa, gazteen bizimodua...). Horrela, udalerraren bizi-kalitatearen eztabaidan ari garenean, ekonomia, ingurumena eta giza harremanak tartean izango dira, garrantzitsuena zein den zehazteko gaitasunik gabe. Horregatik ikuspegi integrala aldarrikatu beharrean gara, trans-hirigintzak jaso nahi duena.

## Komunitate- eta saretze-dinamikak HAPOren prozesu parte-hartzailearen baitan

Legearen arabera biztanleriak udalerraren plangintza-eraketan parte hartzeko eskubidea du eta horretarako dokumentuaren izapidea egiterakoan une zehatzetan hitza ematen dio (idatzizko alegazioak direla medio)<sup>1</sup>. Baina hori ez da parte-hartze prozesua, kontsulta-balioko parte-

(1) Ekainaren 30eko 2/2006 Hirigintza eta Lurzoru Legearen hitzaurrea eta 90. artikulua.



Irudia ~ Ibarrangelurako parte-hartze metodologia. Iturria ~ Egileak

hartze momentua baizik. Bai momentu eta bai prozesu parte-hartzaileak sakontasun-maila desberdinetakoak izan daitezke; kontsulta izatetik herria eraikitze lan-tresna bilakatu arte. Loturirik gabeko momentuen partaidetza-ereduak, berriz, instituzioen legitimazioa lortzen du soilik. Kontran prozesu baten logikak biztanleriaren esku-hartze boterea indartzea du ondorio.

Esan bezalaxe, biztanleriaren parte-hartzea modu askotan gauzatu daiteke, baina halabeharrez alde aurretik esan beharra dago zein izango diren parte-hartzearen jolas-arauak, parte-hartze dinamika frustrazio-iturria izan ez dadin. Horregatik, partaidetza-prozesuak hastapenetik muga politikoak zeintzuk diren azaleratu beharko du, hots, udal-taldeak eskubidea du parte-hartzea kontsultarako soilik erabiltzeko (ezin dugu ahanzi prozesu parte-hartzailea martxan jartzea borondate politikoaren ardura dela), baina argitasunez adierazi behar da zein izango den partaidetzaren balio politikoak.

Parte-hartze prozesua erantzukizun sozialerako lan-esparrua da, herria eraikitze bidea (hiritgintza). Lan-komunitate prozesu baten logikak gaitasuna du herritar indibidualak sartzeko, ikuspegi pribatutan jai diren arazoak politika-mailara eramane daitezke eta horrela arazoari komunitate eta ikusmolde publikotik heldu. Bide horretatik posible da «nire arazo»aren pentsamendu indibidualista baztertzea eta «gure arazo»an murgiltzeko pausoa ematea. Prozesu parte-hartzailearen lan-eredu honek prozesua bera gidatuko duten egitura sozialak sortzea eskatzen du, ahalik eta pertsona gehien mobilizatzea lortu dadin. Komunitatea sortzeko lan honetan berebiziko garrantzia baitu pertsona kopuru handia egiteko gutxitan lanean aritzeak, eta ez maiz gertatzen den moduan, pertsona kopuru txikia arlo askotako ardurapean izateak.

**Udallerriaren diagnosi partekatua**

Udallerri-errealitatearen diagnostika egiteko garaian,

HAPOn helburu estrategikoak finkatzeko unean alegia, prozesu parte-hartzailea funtzio klabe bilaka daiteke, datu abstraktuetatik (ohiko HAPo diagnosiaren oinarria) benetakotasuna duen errealitatea irudikatzen gertutasun-pausoa ematea suposatzen duelako. Komunitatea sortzeko dinamikak bitartez, gainera, azterketa zatikatua ekidin behar da eta ahalik eta ahots, ikuspegi, sektore eta gai oparoenak biltzeko saiakera egin. Komunitatea eratzearen ikuspegiaren aktore indibidual, elkarte, teknikari eta politikarien arteko lan-sare plural bat osatu nahi da. Horrela, proposamenak lantzen diren fasean arazo desberdin asko izango dira mahai gainean erantzuna jasotzeko asmoz. Detektatzen diren gatazka-gaiak gainera askotarikoak izango dira, horietariko batzuen ebazpena teknikoak izango da hirigintzaren HAPOn bidez, beste ekintza batzuen konponbidea biztanleria antolatu eta ez-antolatuak aurkituko du eta beste hainbat udalaren kargu izango dira.

Bestalde, diagnosi partekatua egiteko unean saiakera berezia egin behar da lengoia teknikitik aldentzeko. Hirigintza hitz arrotza da biztanleriaren gehiengoarentzat, teknikotasun handiz jositako hitz boteretsua eta «egoitzen eraikuntzarako tresna» gisa ulertzen da, horren baliokide izan delako urte askotan. Baina biztanle orok zeresanik badu herriaren eraikuntzako oinarri buruz jarduteko unean. Hirigintza kontzeptuak ulermen-zailtasunak dituenik ezin uka, legedi askoren teknika aintzat hartu behar delako eta epe luzerako irudimenean oinarritzen delako. Udallerria izan daitekeena amestu behar da hirigintzan, irudikapen-dimentsio lan bat da finean. Teknikariaren papera hori da zehazki; amesten den udallerriaren irudia josi eta eraikitzen laguntzea.

Diagnosiaren lan-fasea bukatutakoan (arazoak, ebazpideak eta akzio-bide posibleak identifikatu ondoren) beharrezkoa da itxiera-fase bati ekitea, non parte hartu dutenek datorren fasearen ibilbidea zehaztuko duten eta laburpen eta akordioak aditzera emango diren.

Parte-hartze prozesuak, bestalde, udallerriaren

eraikuntzarako aurreikuspen horren «moldaketa» funtzioa betetzeko gaitasuna izan zezakeen. Gaur egungo hirigintza egiteko moduak badu eritasun larri bat: zailtasun handiak ditu errealitateak eskatzen duen bat-batekotasun beharrei erantzuna emateko. Plangintza aurreikuspen-lana da, gaurko ikuspegitik etorkizunera so egitea alegia, eta askotan denbora pasa ahala ezarritako bideak doitze-beharrak eskatzen ditu. Gaixotasun hau salbatzeko, HAPOren idazketa malgutasun-kontzeptuekin jantzi behar da alde batetik (araututakoak balio katalizatzailea izatea), eta bestetik parte-hartze prozesu baten saretze-dinamika osasuntsu batek posible egin lezake moldaketa horiei erantzun partekatu bat ematea. Horrela, udal-plangintzak momentuko beharretara egokitzeko gaitasuna irabaziko luke. **Trans-hirigintzaren bitartez, herriaren eraikuntzak dimentsio fisikoa eta soziala barneratuko ditu, HAPO tresna baliagarri bilakatuz.**

### **Ibarrangeluko HAPOren prozesu parte-hartzailea**

Ibarrangelu udalerriko Plan Orokorra martxan da eta diagnosi parte-hartzailea logika komunitarioarekin praktikara eraman dugu arkitekto-soziologo lantaldeko partaide bezala. Ibarrangelun komunitate-garapena (herritarren saretzea) eta plangintza elkarrekin proposatu ditugu planteamendu horren botereaz baliatzeko (zehar-hirigintza bezala definitu duguna). Gure esperientzia mugatua izan bada ere, lan-eredu honen akzio-eremua frogatzeko aukera izan dugu. Lehen fasean pentsamendu, sektore, adin eta ahots guztiei prozesuan parte hartzeko aukera ireki zaie. Egituraketa zehatzik gabeko elkarrizketen bidez biztanleriak bere afinitate-sarean errealitate desberdinetako ezagutza duten aktoreak identifikatu ditu eta horrek lurraldearen gatazka nagusien gerturatze zabalera iristea ahalbidetu digu. Elkarrizketekin batera udalerriko gune desberdinetatik deribak antolatu dira, giro informala bidez prozesuan inplikazioa areagotzeko modu bat bezala erabilia. Ibarrangeluren kasu zehatzean, udalerraren bizi-kalitatea bereizgarria egiten duelako, erreferente hori azpimarratuko duen plangintza behar dela adostu da, itsas eta mendi-

paisaiaren balio erantsia babesten duten akzioen bilaketa plazaratuz.

Diagnosi-faseari bukaera emateko, eztabaida-mahaiak antolatu genituen hainbat alorretan; Elexalde, landatar eremua eta ekonomia. Burututako azterketaren adostasun-maila frogatzea izan zen helburuetako bat eta, aldi berean, lehen proposamen-bilketa jasotzea. Lan-saioa bertsolarien ahotik entzundako laburpenarekin bukatu zen, parte-hartzaileek prozesua jai-oroimenarekin gorde dezaten.

Prozesuaren jarraitasunari begira, lantalde motor bat sortzea ezinbestekoa izango da, zeina udalerriko sektore, adin eta ikuspegi desberdinetako ordezkariak osatuko duten. Gai zehatzak jorrazteko lan-prozesu berri bat da hau, teknikarien proposamenak garatzeko helburuaz. Lantaldeak aktibo mantendu behar ditu azterketan ateratako lan-ildoetatik eratorritako proposamenak. Proposamenok indar-proiektuen mapa zabal bat osatuko dute zeharkako ikuspegiaren identifikaturiko arazoak ebazteko bide bezala. Denon artean eraikitako mapa horretan biztanleriaren antolaketa-ariketak posible egin lezake administrazioak bideratu ezin dituen proiektuak beste kudeaketa modu batzuekin burutu ahal izatea. Modu horretan etorkizuneko helburu komunaren eraikitzean arituko ginateke.

///

### **Bibliografia**

- Ahedo, I. eta Ibarra, P. (2004): *Democracia participativa y desarrollo humano*, Dykinson, Madril.
- Ibarra, P. eta Blas, A. (2006): "Participación: estado de la cuestión", *Hegoa Lan Koadernoak*, 39, Hegoa, Bilbo, 1-38.
- Rodríguez-Villasante, T. (2007): *La investigación social participativa. Construyendo ciudadanía*, El Viejo Topo, Madril.